



PRENTSA-OHARRA

Vitoria-Gasteiz, 2006ko azaroaren 9a

OSALAN EK ET A EUDELEK IKERKETARAKO ET A AMIANTOAREN TRATAMENDURAKO HITZARMENA SINATU DUTE

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak eta Euskal Udalen Elkarteak, EUDELEk, lankidetz a-hitzarmena sinatu dute gaur amiantoaren tratamendurako eta gai horren kudeaketan lan egiten duten Udal Administrazioko langileen prestakuntzarako.

Amiantoa, besteak beste, eraikinen egituretan, galdaretan, labeetan eta isurkien garraiorako hodie tan aurkitu daiteke, eta hori erabiltzen dutenen osasunerako arazo larriak ekar ditzakeen materiala da, zuntzak oso erraz zabaldu daitezkeelako. Hori dela-eta, 2002ko ekainetik aurrera debekatuta dago material hori erabili, ekoiztu eta merkaturatzea.

Horrez gain, ezinbestekoa da berebiziko arreta jartzea eraikinetan, industrian, herri-lanetan eta antzekoetan egiten diren konpontze-, mantentze-, ordezkatze- edo eraiste-lanak egiterakoan, arriskuak ahal den neurrian murrizteko.

“Hitzarmen honen xedea amiantoaren ikerketa eta tratamendu egokirako beharrezkoa den lankidetz a tekniko a bideratzea da, gai horren kudeaketan ardura duten langileei —kasu honetan Udal Administraziokoei— prestakuntz a eskaintzeaz gainera, azpimarratu du Ignacio Murgiak, Osalaneko zuzendariak.

Sinadura horren bidez bi erakundeek “etengabeko komunikaziorako bideak ezartzeko” konpromisoa hartu dute jarduerak gauzatzetarakoan eta horien jarraipena egiterakoan, eta, horretarako, lan-talde bat ere sortuko dute.

Amiantoarekiko jardueren kudeaketan arduraren bat duten Udal Administrazioko langileei prestakuntz a-ikastaroak eskaintzeko ardura hartuko du bere gain Osalanek; horrez gain, amiantoa erabili beharra dakarten lanetako arriskuak kontrolatzeko aholkuak emango ditu, eta eraispen-lanetan amiantoa dagoen detektatzeko lankidetz a eskainiko du.

EUDELEk, bere aldetik, konpromisoa hartu du Udalei informazioa eman, animatu eta laguntzeko, OSALANekin kolabora dezaten, bai eta amiantoaren erabileraren prebentzioan ezarritako jarraibideak betetzeko ere, “instituzioen arteko elkarlana berriro ere oso lagungarria izango da indarrez eta behar diren errekurtso guztiekin arazo honi aurre egiteko” adierazi du Euskadiko Udalen Elkartearen Elkarteburua den, Karmelo Sáinz de la Mazak, hitzarmena siñatu eta gero.

Jarduerak modu koordinatuan egin daitezzen, lan-talde bat sortuko da, Osalaneko hiru ordezkarik eta EUDELEko beste hiruk osatuta. Horrez gain, jarraipen batzordea ere izango da, hitzarmenaren garapena eraginkorra izan dadin egin beharreko doikuntzak egiteko.

Osalaneko zuzendariaren hitzetan, "gaurko sinaduraren bidez aurrerapauso bat gehiago ematen dugu laneko segurtasun eta higiena bermatzeko dugun konpromisoan. Helburu hori lehentasun osokoa baita Euskal Administrazioarentzat.